Urte eta erdiko negoziazioen ostean, Zarautzeko Udaleko garbitasuneko langileek hitzarmena sinatzea lortu dute Limpiezas Villarrekin, zerbitzu hori eskaintzeaz arduratzen den azpikontrata. Honekin batera, Zarautzeko Udalak ere konpromezua hartu du sinatu den hitzarmena datozen esleipenetan sinatzeko. Hala, Zarautzeko Udaleko garbitasuneko 40 langileen lan baldintzak hobetuko dira gutxienez datozen lau urtetarako. 2016-2019 urteetarako izango da hitzarmena, ultraaktibitatearekin. Soldatetan IPC+2,18ko igoera izango da, eta aintzinatasuna eta garraio plusean ere izango dituzte hobekuntzak, besteak beste.



langileen lan baldintzak bermatzen, ez eta herritarrei eskainitako zerbitzua ere. Sinatu zenean ohartarazi zuen ELAk akordio hura ixteko premiek ondorioak eragingo zituztela, eta orain agerikoa den antolaketa anabasa ekarriko zuela.

## Nuevas jornadas de huelga en las residencias de Bizkaia

ELA ha convocado cinco nuevas jornadas de paro en las residencias de Bizkaia los días 18, 19, 20, 21 y 22 de mayo. Tras las seis jornadas anteriores, la patronal del sector sigue con sus pretensiones de bajar salarios, ampliar jornada laboral e incluir textos que flexibilicen y precaricen las condiciones laborales de las trabajadoras. ELA ha adelantado que seguirá en la pelea hasta lograr un convenio que dignifique el sector y garantice la calidad asistencial del mismo.

## Ertzaintzaren deialdi berrirako 1. Hizkuntza-eskakizuna exijitu du ELAk

Ertzaintzan 250 agente-plaza berrietatik erdiei baino ez zaie eskatzen 1. Hizkuntza-eskakizuna. ELA Ertzaintzatik, behin eta berriz, aspaldidik, Segurtasun Sailari ari dira eskatzen guzti-guztiei eskatu behar zaiela gutxiengo maila hori, izan ere, polizi lana behar bezala bete ahal izateko konbentzituta baitaude gutxien-gutxiengo komunikazio-maila hori beharrezkoa dela.

Are gutxiago ulertzen da erabaki hori, kontuan hartzen bada EEP honen premia belaunaldi berriek aurrekoei lekua hartzea dela esaten denean. Izan ere, belaunaldi berriak hezkuntza sistematik bertatik hizkuntza gaitasunetan prestatuak baitatoz.

## Las trabajadoras de Ayuda a Domicilio de Araba se movilizan

ELA ha denunciado la pretensión de la Diputación de Araba de adjudicar el servicio de ayuda a domicilio a la baja. Un presupuesto de 13.000.000 de euros para prestar el servicio, como pretende la Diputación, obligaría a bajar el precio hora a todas las empresas que se presenten, lo que supondría bajar la calidad del servicio y facilitar a las empresas el incumplimiento del convenio. Ante este nuevo ataque, ELA, LAB, CCOO y UGT convocaron un paro de tres horas el 5 de abril.

## Lanuztea Bilboko Arte Ederretako Museoan

Bilboko Arte Ederretako Museoan lanuztea deitu zuten maiatzaren 16rako Manpower azpikontratako langileek. Izan ere, egun horretan museoen nazioarteko eguna ospatu zen. Azpikontratako 30 beharginek lan baldintza eskasak eta kasurik onenean hilean 900 euroko soldatak dituztela salatu nahi dute. Gainera ez dute subrogaziorako eskubiderik. Enpresa negoziatzera biltzen ez baldin bada ekainaren 7an greba mugagabea hasteko asmoa agertu dute langileek.




**Prekarietatea nagusi Azti Teknalia Fundazioan ››** ELA eta LAB sindikatuek salatu dute Azti Teknaliako langileek geroz eta lan baldintza kaskarragoak dituztela. Jadanik PRECOra 4 bixita egin dituzte, Hitzarmen Kolektiboari oztopoak jartzen dizkiote, dagozkienak baina maila goreneko funtzioak egiten dituzte langileek... eta kaleratzeak ematen dira, kausa objetibo bezala mozorrotuz. Enpresa eredu berria, badakizue. Eusko Jaurlaritzak jarritako arduradunek banan banakako erlazio flexibleak bultzatzen dituzte eta enpresetan PPren lan erreforma aplikatzen dute.

**Insuficiente OPE en Osakidetza ››** ELA ha calificado de insuficiente el anuncio de una OPE en Osakidetza que mantendrá la temporalidad en un 30%, al tiempo que ha exigido acabar con una precariedad laboral inaceptable en una administración pública.

ELA ha explicado, asimismo, que las 929 plazas anunciadas suponen las jubilaciones previstas por lo que Osakidetza no va a estabilizar ningún puesto de trabajo ocupado por personal temporal ni tampoco va a crear empleo.

**Más de 200 ertzainas se concentran contra los recortes ››** Más de 200 ertzainas participaron en la concentración convocada por ELA y ErNE el pasado 11 de mayo, coincidiendo con la inauguración del Congreso de laboratorios forenses y policiales celebrado en Bilbao, al que asistía la Consejera de Seguridad, Estefanía Beltrán de Heredia.

Los convocantes de la concentración denunciaron la grave situación que vive hoy la Ertzaintza, la nula voluntad negociadora del Departamento y su apuesta por seguir con la política de recortes.

# ¡Bienvenidos al otro Bilbao!

## EL 22 DE ABRIL, DELEGADOS Y DELEGADAS DE ELA DE LA COMARCAL DE BILBAO VISIBILIZARON EL MAPA DE PRECARIEDAD DE LA CAPITAL VIZCAÍNA



› ERREDAKZIOA

**Dentro de la Campaña contra la Precariedad del mundo del trabajo** que viene desarrollando el sindicato durante los últimos meses, el 22 de abril le tocó el turno a la comarcal de Bilbao. Ese día, decenas de delegadas y delegados realizaron una marcha por las calles de Bilbo para hacer visible la situación de explotación que muchos trabajadores y trabajadoras viven día a día, ante el silencio de los medios *oficiales*.

Tal como explicó Mikel Etxebarria, “con esta marcha hemos querido poner el foco, también, sobre la responsabilidad de nuestros gobernantes y administraciones que no hacen nada para revertir esta cruda realidad. A ellos también les señalamos como cómplices necesarios, y les exigimos que dejen de apoyar esta realidad precaria y la cambien”.

Lo que sigue fue el recorrido realizado, como si de una vuelta ciclista se tratase:

### ■ PRóLOGO: ATENTO-EITB

***ATENTO**: convenio estatal Telemarketing: 800 euros.

### ■ ETAPA 1: EITB-EUSKO JAURLARITZA

***EITB:** EEE, kaleratzeak, behin-behinekotasuna iruzurrean, zarama-kontratuak...

***SAN MAMES BARRIA:** 12 horas por 5 euros hora.

***RESIDENCIA MISERICORDIA/AUZO LAGUN:** externalización, no subrogación.

***EUSKALDUNA JAUREGIA, DELTA eta ESC:** Lanbidearteko gutxieneko soldata.

***NSS/ESTADO:** Salarios 1.000 euros.

***NH HOTEL VILLA BILBAO/ CONSTANT:** Limpiadoras de habitaciones subcontratadas por 2,5 euros la habitación.

***EUSKO JAURLARITZA:** Behin-behinekotasuna+LHE/ILPari ezetza+erantzukizun politikoa.

### ■ ETAPA 2. EUSKO JAURLARITZA-OSAKIDETZA

***OSAKIDETZA:** Eventualidad; privatización; destrucción de puestos de trabajo...

### ETAPA 3: OSAKIDETZA-INSPECCIÓN/CEBEK

***LAN IKUSKARITZA/CEBEK:** Lehenengoaren geldotasunagatik eta eraginkortasun ezagatik badirudi talde berean daudela.

### ETAPA 4: INSPECCIÓN/CEBEK-TORRE IBERDROLA

***MUSEO BELLAS ARTES/MANPOWER:** Colectivo subcontratado por una empresa Outsourcing con un Convenio de empresa Estatal y salarios de miseria.

***PARKING PLAZA EUSKADI/DELTA:** Salario Mínimo Interprofesional.

***IBERDROLA:** 1000 trabajadore/as en subcontratas; precariedad absoluta; 1.919 millones euros de beneficios y Sánchez Galán con un salario diario de 42.000 euros.

### ■ ETAPA 5: TORRE IBERDROLA-KUTXABANK

***MUTUALIA:** Salarios congelados desde 2009.

***CENTRO AZKUNA/LA ALHONDIGA:** 20 langile plantillan eta 150etik gora azpikontratetan.

***EMTESPORT:** Salarios de 800 euros.

***KUTXABANK:** Eventualidad en fraude; despidos; traslados; cierre de oficinas; contratos de prácticas con el 80% del salario; desinversión; privatización.

### ■ ETAPA 6: KUTXABANK-FNAC/ EL CORTE INGLÉS

***FNAC/EL CORTE INGLES:** Saltoki Handietako Estatu-Hitzarmena, miseriako baldintzak eta soldatak.

### ■ ETAPA 7: FNAC/EL CORTE INGLÉS-ADECCO

Etapa con final inédito. Empresas Outsourcing o externalizacion, miedo da ver lo que viene. Una meta volante de precariedad antes.

***ETXEKIDE:** 400 eta 800 euroko soldatak. Kaleratze kolektiboak. Etxez etxeko laguntza-lana.

***ADECCO OUTSOURCING:** Uno de los peores convenios de la historia. Casi 1.826 horas anuales, de lunes a domingo, por un salario de 9.200 euros brutos al año.










### ■ ETAPA 8: ADECCO-BBVA

***BANCO SANTANDER:** Despidos contra mujeres; prolongaciones de jornada.

***BBVA:** Oficinas con ETTs con horarios reducidos y sin personal propio.






# “Enplegu duina eta justizia soziala eskatzea ez da maximalismoa”

MILAKA PERTSONEK –8.000 BAINO GEHIAGO– PARTE HARTU ZUTEN ELAK MAIATZAREN LEHENEAN BILBON ETA IRUÑEAN ANTOLATUTAKO EKITALDIETAN

› **ERREDAKZIOA**

**Milaka pertsonek -8.000 baino gehiago- parte hartu zuten Maiatzaren Lehena ospatzeko ELAk Bilbo eta Iruñean antolatu dituen ekitaldietan.** *Gehiago balio duzu. Con reformas y convenios estatales más precariedad y pobreza* lelopean ospatutako ekitaldietan ELAk salatu zuen lan erreformak eta estatu mailako hitzarmenek prekarietatea eta txirotasuna ekarriko dutela.

**ELA quiere trasladar un mensaje de esperanza y de confianza en nosotros/as mismos/as: debemos transformar el hastío y la rabia que provocan las injusticias en poder, en organización**

Lehentasuna izan zuten uneotan indarrean dauden greba eta mobilizazioek: Bizkaiko erresidentziak, Gipuzkoako errepideen mantenua, TMB Arraiz, Arcelor Mittal, EATON, Defontaine, Limpiezas Villar, Trapagarango kale garbitzaileak edo Bizkaibus, besteak beste.

Ohi denez, eguerdian ELAko idazkari nagusiak hitz egin zuen afiliatuen aurrean. Muñozek adierazi zuen langileontzat egoera zaila eta gogorra izan arren, itxaropena mantendu beharra dagoela. "Geure buruan konfiantza izan behar dugu, injustiziak eragiten duten nazka eta amorrua botere eta antolakuntza bihurtu behar ditugu. Hori da mugimendu sindikalak atera behar duen ondorio nagusia”.

ELAko idazkari nagusiak balioa eman zion lan sindikalari: “Sindikatua da




**Gobiernos y patronal no quieren un acuerdo con el movimiento sindical; quieren que aplaudamos sus decisiones**














gobernuei eta patronalari aurre egiteko kontrabotere. Jende ahulena antolatzeko lan egingo dugu. Eta borrokara goaz. Antolatzen bagara, posible da. Kontrabotere izan nahi duen sindikalismo baten eginbehar nagusia antolatzea da".

Beste une batean, Muñozek nabarmendu zuen ajusteak eta erreformak ez direla bukatu: "Botere ekonomikoak behin eta berriz esaten du erreforma estruktural gehiago egin behar direla (laborala eta pentsioena), eta murrizketak azkartu, defizita betetzeko (20.000 milioi euro moztu behar omen dira). Soldaten jaitsiera inposatu zutenek orain diote jornal kaskar hauekin ezin direla pentsioak ordaindu; horregatik, beste erreforma bat egin behar omen da".

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren eta Confebasken gizarte-eredua antisoziala dela azpimarratu zuen ELAko idazkari nagusiak. "Bat datoz gizarte-ereduari dagokionez; eta eredu horren oinarriak dira enplegu prekarioa, babes gabezia soziala eta sindikatuak ahultzea. Ados daude: eskubide laboral eta sozialak suntsitu eta eragotzi egin behar zaio ahulei, langile-klaseari, antolatzea".

**Jai giroa ere izan zen langileen egunean.** Mitinaren ondoren Bilboko plaza Zirkularreraino manifestazio koloretsua izan zen; ohiko abestien ondoren (*Zutik, emakumea, Internazionala eta Eusko Gudariak*) eguneko zatirik erreibindikatiboena amaitu zen. Gero Areatzan jarri zen karpa erraldoian herri-bazkaria zerbitzatu zen. Bi mila lagun inguruk otordu ekologiko goxoa izan zuten, bertoko produktuekin, elikadura burujabetzaren aldeko keinua eginez. Izan ere, bestelako kontsumo eredu bat ere posible da.











# ELAk aldaketa sozial sakonago bat eskatzen du Nafarroan

ELAK IRUÑEKO KALEAK GAINEZKA EGIN ZITUEN MAIATZAREN LEHENEAN, PREKARIETATEAREN HEDADURA SALATZEKO, ETA POLITIKA-ALDAKETA ESKATZEKO



**ELA itzuli da aurten Iruñeko Maiatzaren Lehenera, 1999tik parte hartu gabe egon ondoren.** Oraingo honetan prekarietatearen hedadura eta hitzarmenen estatalizazioa salatzera eta "aldaketa sakonago bat Nafarroan" eskatzera manifestazio ugari batean. Gurutze plazatik abiatu da manifestazioa 11:30etan, goiburu honen pean: *Gehiago balio dugu / Valemos más*. Lelo horrekin batera beste hau ere eramaten zuten martxaren buruan: *Estatuko erreforma eta hitzarmenekin prekarietate eta pobrezia gehiago*. Ibilaldia, hiriko erdialdea zeharkatu ondoren, udaletxean amaitu zen. Manifestazioan zehar askotariko pankartetan nork bere mezua iragartzen zuen: *Elkarrizketa soziala, finantzaketa ilegala, Erreformaren aurka, hitzarmen sendoak Industrian* edo *Gamesak bota gaitu, CCOO-UGTk saldu gaitu.*

Mitxel Lakuntzak, Nafarroako koordinatzaileak, bere kezka agertu zuen gizarte osoarentzako politika sozialik ez izateagatik. "Gu oso kritikoak gara Nafarroako Gobernua jokatzen ari den paperarekin, egin duen erreforma fiskala hutsala izan baita". Eta beste hau gehitu zuen: "Nafarroan badago tartea aldaketa sozial sakonago bat egiteko; batez ere, nabarmendu nahi dugu borroka sindikalaren, sindikatuaren eta negoziazio kolektiboaren papera, gure arazo guztiei aurre egiteko orduan".

Gero, herri-bazkaria egin zen Bernart Etxepare ikastetxean, Txantrea auzunean, umeentzako puzgarrien, antzerki eta musikaren laguntzaz.
















LAN OSASUNA
SALUD LABORAL

# Lan osasuna eta negoziazio kolektiboa

LEGEAK EZARTZEN DUEN PREBENTZIO ORDEZKARI KOPURUA HITZARMENETAN HANDITZEA PROPOSATZEN DU ELAK



› LEIRE HEREDIA

**Gure lan zentroetan lan osasunaren auzia gero eta indar gehiago hartzen ari da,** edo behintzat horretarako lanean ari gara sindikatuan. Langileok prebentzio neurririk eta segurtasunik ez izateak suposatzen duenaz ohartuta, ezinbestekoa zaigu ekintza sindikalaren ardatzean kokatzea lan osasunaren babesa. Lan baldintza okerretan lan eginda, segundo gutxi batzuk aski dira lan istripu bat izateko. Lan gaixotasunen kasuan, urte batzuk pasatuta azaleratuko dira kalteak.

Hala ere, ez da lan erraza izaten lan osasun eta segurtasunari behar duen bultzada ematea enpresetan. Alde batetik, pairatu ditugun erreforma guztiek hainbeste kaltetu dizkigute lan baldintzak, non lan osasuna beste hamaika gauzen artean landu beharreko gaia bihurtu baita (soldata dela, ordu-malgutasuna, lan-erritmoak, azpikontratazioa, ultraaktibitatea...). Bestetik, enpresa gehienetan prebentzioa diru galera bezala ulertzen delako oraindik, langile guztien segurtasunean egindako inbersioa baino gehiago. Eta prebentzio eta segurtasun maila egoki bat lortzeko diru inbertsioak ezinbestekoak dira, noski.

Guzti honengatik, eta kanpotik laguntza eskasa jasoko dugunez, lan osasunak behar duen bultzada langileon esku dago lantokietan, gure eguneroko jardunean, eta horretarako tresna ezberdinak ditugu. Tresna horien artean sindikatua bera dugu, nola ez, eta bereziki negoziazio kolektiboa. Egia da azken urteetan ekintza kolektiboaren kontrako erasoak ugariak izan direla, baina oraindik ere enpresetan indar korrelazio nahikoa izanda, gure esku dagoen tresnarik eraginkorrena da negoziazio kolektiboa.

Hala da, lan osasunak ere badu zeresana negoziazio kolektiboan. Federazio ezberdinekin lanean ari gara hitzarmenetan lan osasunaren presentzia handitzeko. Prebentzio arloan ere gauza asko hobetu, eta batez ere, erraztu daitezke, gure hitzarmenetan jasota baldin badaude. Adibide batzuk jarriko ditugu, ahal den neurrian enpresa bakoitzean lortu beharreko helburu izan daitezkeenak:

Lan osasunean eskumen gehien dituzten ordezkariak prebentzio delegatuak dira, legeak konpetentzia zehatz batzuk ematen dizkietelako. Beraz, zenbat eta prebentzio delegatu kopuru handiagoa izan, orduan eta indar handiagoa izango dugu lan osasunaren alde egiteko. Legez, langile kopuruaren araberakoa da prebentzio delegatuen zenbatekoa: 49 langile arte prebentzio ordezkari bakarra aukeratu behar da; 50etik 100erarte bi aukeratu behar dira; 101etik 200erarte hiru izango lirateke...

**Si contamos con la suficiente correlación de fuerzas en las empresas, la negociación colectiva es una herramienta muy eficaz para actuar a favor de nuestra salud**

**Gure proposamena hurrengoa da: legeak ezartzen duen prebentzio ordezkari kopuru hori hitzarmenetan handitzea.** Adibidez, 49 langile dituen enpresa batean bi prebentzio ordezkari hautatzea, euren proposamenek indar handiagoa izan dezaten. Zaila ikusten bada lehen aukera hau, hona hemen beste bat: prebentzio ordezkariei ordu kopuru finko bat ezartzea hitzarmenetan. Izatez, prebentzio ordezkariek enpresa delegatu izateagatik dituzten orduak baino ez dituzte. Ordu kopurua handitzeak prebentzioan lan gehiago egiteko aukera emango lieke, dudarik gabe.

Legeak 50 langile baino gehiago dituzten enpresetan segurtasun komite bat eratu behar dela ezartzen du prebentzio gaiak jorratzeko. Komite hau hiru hilero batu behar da. Hitzarmenen bidez segurtasun komitearen bilerak hiru hilero izan beharrean hilero egitea proposatu dezakegu, adibidez.

Bestalde, zer gertatzen da 50 langile baino gutxiago duten enpresekin? Kasu hauetan ere negoziazio kolektiboaren bidez hobekuntzak lor ditzakegu, tamaina honetako enpresetan ere segurtasun komitea eratzea eskatuz.

Ez dugu ahaztu behar askotan jorratu dugun gai garrantzitsua: gertakizun arruntak osasun sistema publikoan mantentzearena, hain zuzen. Mutualitate batek gertakizun arruntak eraman ezkero arazoak baino ez ditugu izango eta mutuen lege berriarekin okertu egin da egoera. Beraz, lan hitzarmenetan puntu hau ondo lotu behar da, gertakizun hauen kudeaketa publikoa izango dela bermatzeko.

Ikusten den bezala, lan hitzarmenetan Prebentzio Legeak ezarritako kontzeptu asko hobetu daitezke. Aipatutakoak adibide bat baino ez dira. Antolakuntza eta babes kolektiboa lan osasuna babesteko tresna ezinbestekoak dira.

LEGEAREN BUELTAK
PAGINAS JURIDICAS

# Estatalizazioaren protagonistak eta kontraesanak

**La estatalización de la negociación colectiva** no es un agente meteorológico ni ha venido del espacio exterior: tiene leyes, razones económicas y protagonistas –sindicatos y patronales– que la impulsan.

No se me ocurre mejor ejemplo que lo sucedido en la restauracioón colectiva. La patronal estatal Feadrs ha impugnado el convenio de Hosteleria de Bizkaia pretendiendo que a las y los trabajadores de la restauración colectiva de ese territorio se les aplique el convenio estatal, de salarios inferiores y jornadas superiores. CCOO y UGT son, a la vez, firmantes del convenio estatal (que la patronal española pretende imponer) y del convenio de hostelería de Bizkaia, que con esta demanda se pretende anular.




› HAIMAR KORTABARRIA

**Estatalizazioa ez da agente meteorologiko bat.** Ez eta espaziotik etorritako martzianoa ere. Baditu bere alde jarduten duten lege, arrazoi eta protagonistak ere.

Legearen ikuspuntutik, lan erreformak dira estatalizazioa posible egin dutenak. Negoziazio kolektiboa zein eremutara eramaten den ez da negoziazioan ari direnek soilik kontrola dezaketen zerbait. Legeak zerikusi zuzena, erabakigarria du, legeak markatzen baitu sinatzen denak lan harremanen baitan izango duen eragina. Eta horregatik beragatik, hain zuzen ere, legea erabakigarria da negoziazio mahaian daudenen posizio eta estrategian. Erreforma ondorengo marko berriak estatalizazioa gertatzeko baldintzak jarri ditu, estatuko sektoreko hitzarmenei eman zaien indarragatik eta hitzarmenen ultraaktibitatearen amaieran akordiorik ez egoteak dakarren *zigorragatik* –gorago dagoen hitzarmena aplikatzen hastea, alegia–, batik bat.

Estatalizazioa ez da zentralizazioaren maitale diren eta Espainiako nazionalismoa era horretan ulertzen dutenen amets hutsa, baditu ikuspuntu ekonomiko eta sozialetik begiratuta kapitalari mesede egitera etorri dela pentsatzera garamatzan zenbait ondorio. Eta horrek estatalizazioaren arrazoietara garamatza: estatalizazioak langile klasearen pobretzea –estatuan sinatutako hitzarmenak hemen dauzkagunak baino dezente okerragoak dira– eta estatu mailakoak ez diren sindikatuen eragiteko eta antolatzeko gaitasuna murriztea dakartza. Langileei nola izango gatzaizkie erabilgarri bere lan baldintzak negoziatu eta borrokatzeko gaitasuna kentzen badigute?

**Protagonistak.** Eta azkenik, estatalizazioak baditu protagonistak ere. Legeak irekitako aukerari heldu eta gure negoziazio esparruetako lan baldintzetan esku-hartzeko hautua egin duten patronal eta sindikatuez ari gara noski. Hautu horren erakusgarri da duela gutxi Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen talde handientzako otorduak prestatzen dituztenen sektoreko Estatu mailako hitzarmenarekin gertatutakoa. Izan ere, Madrilen UGT eta CCOO sindikatuekin estatu mailako hitzarmen hori sinatu duen Feadrs patronalak Bizkaiko ostalaritza hitzarmenaren aurkako demanda jarri du epaitegietan. Demanda horretan zera eskatzen da: Bizkaian talde handientzako otorduak prestatzen dituzten enpresetan lan egiten duten langileei Bizkaiko ostalaritza hitzarmena aplikatu beharrean estatuko hitzarmena aplikatzea. Soldata nabarmen txikiagoa eta lanordu gehiago, alegia.

**La estatalización empobrece a la clase trabajadora; desde el punto de vista social y económico está pensada para favorecer al capital**

Ez zait estatalizazioaren miseriak agertzeko adibide egokiagorik burura etortzen. UGT eta CCOOrekin batera estatu mailan hitzarmena sinatu duen patronala Bizkaian ELA, CCOO eta UGTk sinatu eta eduki askoz hobeak dituen hitzarmena balio gabe uzteko demanda jartzen. Epaiketarako egunik ez da oraindik ezarri, baina eszenifikazioa imaginatze hutsak auzo lotsa eragiten du: Espainiako patronala, Espainiako UGT eta CCOO mahaiaren alde batean eta EAEko CCOO eta UGT, Bizkaiko ostalaritza sektoreko patronala eta ELA bestean. ELAk Bizkaiko ostalaritza hitzarmenaren aplikazioaren aldeko defentsa sutsua egingo du, horren dudarik ez dago. Besteek kudea ditzatela euren kontraesanak.

CONSULTORIO JURIDICO

# Precisiones jurisprudenciales en materia de servicios mínimos

El derecho de huelga, como manifestación expresa del conflicto entre las y los trabajadores y la empresa, se ha configurado de manera independiente y autónoma al conflicto colectivo, quedando desarrollado positivamente en el art. 28 de la Constitución. Se configura como un derecho subjetivo por el que el trabajador o la trabajadora instrumentaliza un medio de lucha o conflicto en el que se pretende enervar, anestesiar o suspender la actividad empresarial. Se trata, en definitiva, de un medio de presión necesario para la reafirmación de los intereses de las personas trabajadoras en conflictos socioeconómicos.

No obstante, la posibilidad de limitar el derecho de huelga es también admitida, debido a la pugna o contradicción que puede concurrir entre su ejercicio y el mantenimiento de otros derechos de índole fundamental, como puede ser, por ejemplo, el derecho a la salud de la ciudadanía. De ahí que el ordenamiento constitucional admita la posibilidad de perfilar o modular el derecho de huelga mediante el establecimiento de cánones en su desarrollo y fijando límites específicos en su ejercicio, como los servicios mínimos. El establecimiento de estos servicios de obligado cumplimiento genera una gran conflictividad, ya que su interpretación y aplicación práctica requiere, normalmente, de la intervención del empresario o empresaria. Veamos algunos ejemplos:

## Mantenimiento del 100% de los servicios y posibilidad de secundar la huelga

En este caso, se trata de establecer si la fijación de servicios mínimos facultaba a la trabajadora demandante para poder ejercitar su derecho de huelga, pese a encontrarse incluida dentro de una actividad en la que el servicio mínimo integraba el 100% de la Orden. Dicha Orden señalaba, además, que los servicios mínimos debían prestarse por personas que no ejercitaran el derecho a la huelga, salvo que con dicho personal no se alcanzase a cubrir los servicios mínimos establecidos. La Sentencia del TSJ del País Vasco, de fecha 9/02/2016, concluye que la Orden debe conducir a la posibilidad de que la trabajadora ejercite su derecho, rechazando la interpretación de la administración demandada consistente en que como la demandante está integrada en un servicio que debe mantenerse al 100%, siempre estará restringido su derecho a participar en la huelga. El tribunal entiende que atendiendo a las concretas circunstancias del caso, en la práctica existen medidas que podrían haberse acomodado a la Orden de servicios mínimos y que habrían permitido a esta trabajadora ejercer su derecho. Dichas circunstancias eran: primero, que el servicio integraba el turno con tres trabajadoras; segundo, que la demandante era la única que había anunciado, previamente y con un antelación suficiente, su voluntad de secundar la huelga; y tercero, que existe en la demandada una práctica habitual de sustitución de trabajadoras para otras circunstancias, y que el día y turno en cuestión había un grupo de 16 personas que habitualmente cubre incidencias de servicios especiales, entre los que se encuentra el servicio que efectivamente desarrolla la demandante.



## Retribución de las y los trabajadores convocados a servicios mínimos

En este caso, la empresa y la sentencia del Juzgado de instancia entienden que a aquellos trabajadores o trabajadoras que están en huelga y adscritos a un servicio mínimo, sólo se les debe abonar la parte de tiempo de trabajo efectivo realizado y quince minutos más. En cambio, la Sentencia del TSJ del País Vasco, de 13/03/2013, discrepa de lo anterior y concluye que "es la empresa quien decide quiénes deben formar parte de los servicios mínimos y qué concreto trabajador/a queda afectado/a por dicha planificación, no llegando, en tales casos, a suspenderse el contrato de trabajo, por lo que los trabajadores/as convocados/as a la prestación de servicios mínimos tienen derecho a su completa retribución o salario, con independencia de que presten trabajo efectivo durante dicho tiempo de servicios mínimos pues, en definitiva, supone que prestan servicios y están a disposición de la empresa". En resumen, que la persona trabajadora presta servicios mínimos para la empresa, bien con carácter efectivo bien a disposición de la misma y, por tanto, durante su realización se presta trabajo efectivo que no puede dejar de ser remunerado.

## Interpretación abusiva de la orden de servicios mínimos

Se trata del caso de una empresa de transporte de viajeros que aplica la Orden de servicios mínimos que establece la necesidad de cubrir el 30% de manera que, si bien globalmente y atendiendo a todas las líneas afectadas por la huelga se respeta dicho porcentaje, el reparto se hace de manera desigual por líneas, alcanzando en algunas líneas -las más concurridas- el servicio al 100%. El TSJ del País Vasco, Sentencia de 7/10/2014, concluye que la empresa, con su actuación, quitó visibilidad total a la huelga en determinadas líneas, sin que figuren las especiales razones que justificaran una decisión de tal naturaleza. En la práctica, lo que la empresa demandada hizo fue imponer respecto a los servicios mínimos una interpretación que supuso una limitación añadida, infringiendo el derecho constitucional de huelga.

GIZARTE EREDUA
POLÍTICA SOCIAL

# El Gobierno Vasco quiere recortar las prestaciones sociales para vivienda

ELA EXIGE AL EJECUTIVO DE GASTEIZ LA RETIRADA DEL BORRADOR DE DECRETO DE DESARROLLO DE LA LEY DE VIVIENDA Y QUE RENUNCIE A APROBAR NINGUNA MEDIDA QUE SUPONGA LA DEROGACIÓN DE LA PRESTACIÓN COMPLEMENTARIA DE VIVIENDA




› JANIRE LANDALUZE

**El 18 de junio de 2015, se aprobó en el Parlamento Vasco la Ley 3/2015 de Vivienda de la CAPV** con los votos a favor de EH Bildu, PSE-EE y UPyD. La ley tiene su origen en el proyecto de ley presentado por el PSE-EE en 2011. La aprobación de una Ley de Vivienda era una reclamación histórica de los movimientos sociales. ELA siempre reivindicó que se garantizase por ley el derecho de acceso a una vivienda digna, que fuese un derecho exigible ante las instituciones.

Aprobada la Ley, los grupos firmantes señalaron que tenía un gran valor porque respondía a la necesidad imperiosa de tener una Ley de Vivienda que recogiera el derecho de acceso a una vivienda digna.

**Deficiente.** ELA, el 28 de julio de 2015, presentó su “Valoración de la Ley de Vivienda de la CAPV”, criticando, precusamente, que Ley no garantizaba el derecho de acceso a una vivienda. Conforme a la Ley, ese derecho quedaba muy limitado:

**1.** La Ley señala que las ciudadanas/os que cumplan determinados requisitos podrán solicitar ante la administración una vivienda en régimen de alquiler, y que ésta estará obligada a ofrecérsela o, en su defecto, tendrá que crear un sistema de prestaciones económicas (sin concretar).

## EAEko Etxebizitza Legeak ez du bizileku bat izateko eskubidea bermatzen

## Etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko aukera izateko eskubide subjektiboari buruzko dekretu-proiektua onartzeak EPOa (Etxebizitzako prestazio ekonomikoa) indargabetuko luke eta ondorio oso larriak izango lituzke

**2.** Los requisitos que se debían cumplir para acceder a ese derecho tampoco se concretaban en la Ley.

**3.** Es decir, la Ley dejó en manos del Gobierno Vasco (que se había opuesto a la misma) la concreción de los derechos: determinar quién tiene derecho realmente y cuál sería la cuantía de la prestación económica.

**4.** Mientras la ley no fuera desarrollada se fijaban unos requisitos sobre ingresos, cantidad de miembros de las unidades de convivencia y de antigüedad de inscripción en el registro de demandantes de alquiler para poder ser titular del derecho subjetivo.

Ya en aquel instante dijimos que esos requisitos excluían a la mayor parte de las personas, que verían vulnerado su derecho a acceder a una vivienda y que, en base a esos criterios tan restrictivos, prácticamente nadie que no estuviese cubierto con la Renta de Garantía de Ingresos y la Prestación Complementaria de Vivienda iba a poder beneficiarse realmente de lo aprobado y hacer efectivo su derecho.

Además, denunciábamos que la Ley se elaboró sin posibilitar un proceso de participación social por parte de ningún grupo político; que en contra de la propaganda realizada, la Ley no reconocía el

## Prestazio berria jaso ahal izateko eskakizunak orain artekoak baino askoz zorrotzagoak dira

derecho subjetivo a la vivienda; que sin dotaciones presupuestarias suficientes y una política fiscal diferente, este tipo de leyes quedan en papel mojado; y que el Gobierno Vasco se manifestó contrario a los cambios aprobados. Su prioridad en la política de Vivienda (Plan de Vivienda, presupuestos, impulso de la propiedad, negativa a reconocer las obligaciones de las administraciones y los derechos de las personas y familias necesitadas, etc.) ha sido defender a quienes se enriquecen y hacen negocio con las necesidades de la gente.

**Aprobada la Ley, los presupuestos del Gobierno Vasco para 2016 empeoraban aún más la situación** ya que derogaban, a escondidas, la Prestación Complementaria de Vivienda.

La disposición adicional séptima de la ley de presupuestos del Gobierno Vasco para 2016, aprobada por el PNV y el PSE-EE, recogió que "la Prestación Complementaria de Vivienda (PCV) se mantendrá vigente hasta que entre en vigor el desarrollo reglamentario del sistema de prestaciones económicas recogido en la Ley de Vivienda". Es decir, la entrada en vigor del reglamento que regule la nueva Prestación Económica de Vivienda supondría la derogación de la PCV. Esto afectará a quienes a partir de ese momento solicitasen el derecho y a quienes percibían y perciben la PCV (transitoriamente la percibirían, pero durante un tiempo limitado).

La aprobación de esa disposición adicional se llevó a cabo a escondidas. Nadie se percató en el debate parlamentario de su gravedad.

**Preocupante borrador de Decreto de desarrollo de la Ley de Vivienda.** Finalmente, a mediados de enero de 2016, el Gobierno Vasco, en su portal Irekia, publicó el borrador de Decreto de desarrollo de la Ley de Vivienda. Analizado el mismo, son muchos los puntos preocupantes:

- Se establece una nueva prestación (Prestación Económica de Vivienda, PEV), que se declara incompatible con la PCV o las Ayudas de Emergencia Social destinadas al pago del alquiler de vivienda.
- El derecho queda limitado al colectivo que cumple los requisitos establecidos en las disposiciones transitorias de la ley (cuatro años de inscripción como demandante de vivienda solo de alquiler, y las escalas de ingresos y número de miembros de la unidad convivencial señalados en el apartado anterior de este documento). Es decir, el borrador de decreto se limita a regular el mínimo aprobado en la Ley.
- El derecho reconocido se limita a una consideración genérica sobre que las administraciones pondrán a disposición de este colectivo las viviendas existentes (si disponen de alguna) a cambio de una renta o canon. No se obliga a las administraciones a ampliar el número de viviendas protegidas. En caso de no disponer de viviendas, se regula una prestación económica de 250 euros al mes para sufragar el pago del alquiler de la vivienda, previa presentación del "contrato de arrendamiento de la vivienda en la que se reside con carácter habitual y permanente".

Así pues, la aprobación del decreto conllevaría la derogación de la PCV y tendría unas consecuencias muy graves: supondría un fuerte recorte, un ataque en toda regla a los derechos de las personas más desfavorecidas de la sociedad.

**Los requisitos para acceder a la nueva prestación son mucho más restrictivos** que los actualmente existentes para la PCV. Así, por ejemplo:

- Para solicitar la PCV no se exige antigüedad en el registro de Etxebide (a partir de ahora se van a requerir 4 años, y exclusivamente para vivienda de alquiler).
- No se excluye de la PCV a las unidades convivenciales de menos de 3 miembros.

La escasa entidad del nuevo derecho recogido en la Ley queda refrendada por el hecho de que, tras la entrada en vigor del texto, tan solo 50 familias han solicitado el reconocimiento del derecho.

Por tanto, la nueva prestación beneficiará a muchísimas menos personas que la PCV. A lo largo de 2015 casi 29.000 familias han percibido durante algún momento la PCV. La gran mayoría quedaría excluida con la nueva regulación prevista. Las AES para Vivienda alcanzaron en 2015 a otras 7.000 familias. La inmensa mayoría de estas personas no cumpliría los requisitos que se establecen para la nueva prestación.

El presupuesto aprobado por el Gobierno Vasco para 2016 permite hacernos una idea de la magnitud del recorte: 86,5 millones para la PCV, por tan solo 2 millones para la nueva prestación. La finalidad es gastar mucho menos de lo que se gastaba hasta ahora, lo que se hace a costa del derecho de la gente más vulnerable.

**Exigimos la retirada de este decreto.** En conclusión, de aprobarse, el Decreto sería un nuevo recorte, durísimo, del Gobierno Vasco. Exigimos su retirada y que renuncie a aprobar ninguna medida que suponga la derogación de la Prestación Complementaria de Vivienda.

***El mes pasado, el Tribunal Constitucional decidió suspender cautelarmente parte de a Ley Vasca de Vivienda.***

### STOP MURRIZKETA BERRI HONI!

Iazko ekainaren 18an Eusko Legebiltzarrean EAEko 3/2015 Etxebizitza Legea onartu zen, EH Bildu, PSE-EE eta UPyDren aldeko botoaz. Legearen jatorria PSE-EEk 2011n aurkeztutako lege-proiektua izan zen.

ELAk 2015eko uztailaren 28an kaleratu zuen bere *EAEko Etxebizitza Legearen Balorazioa*. Bertan salatu genuen legeak ez zuela etxebizitza bat izateko eskubidea bermatzen, aurreikusi genuen ezarritako baldintzek (ekonomikoak eta alokairuko etxebizitza eskatzeko erregistroan izena emanda egoteari buruzkoak) bizilekua izateko eskubidea urratuta zuen jende gehiena baztertzen zutela eta, irizpideak hain zorrotzak baziren, zegoeneko Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) eta Etxebizitzako Prestazio Osagarria (EPO) ez zuen ia inork ezin izango zuela araudi berriaren onura izan eta eskubidea gauzatu.

2016ko urtarrilaren erdialdera Eusko Jaurlaritzak *Etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko aukera izateko eskubide subjektiboari buruzko dekretu-proiektua* ezagutzera eman zuen. Hau onartzeak EPOa indargabetuko luke, eta ondorio oso larriak izango lituzke. Horregatik ELAk Eusko Jaurlaritzari exijitzen dio etxebizitzako dekretu-zirriborroa erretira dezala eta ez dezala Etxebizitzarako Prestazio Osagarria indargabetuko duen erabakirik hartu.

KRONIKA
DE LA A A LA Z




# Errealitatetik kanpo gaude

› GORKA QUEVEDO

**Bai, hala esan du Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakari Iñigo Urkulluk.** Errealitatetik kanpo gaude. Ajuria Enean bota zuen esaldia, agerraldi publiko batean. Ez zegoen bakarrik hori esan zuenean, Confebask patronalaren arduradun nagusia -Roberto Larrañaga- ondoan zuen. Arcelor Mittal multinazionalak Zumarragan duen lantokia ixteko asmoa iragarri ondoren, bere gobernuaren industria politikari buruz egindako kritiken inguruan galdegin ziotenean erantzun zuen hori. Sindikatuak (guztiak ez, noski, "batzuk") errealitatetik kanpo bizi (omen) gara. Are eta gehiago, errealitatera itzuli eta guztiak arraunen elkarrekin egiteko gonbita luzatu zuen. Antza denez, Lakshmi Mittal jaunak –Forbes zerrendaren arabera munduko pertsonarik aberatsenetakoa– eta Zumarragako lantokian kale-gorrian geratzeko arriskuan dagoen lagun batek interes bertsuak dituzte, eta horregatik elkarrekin egin behar dute arraunean, ontzi berean baitoaz.

Errealitatea poliedrikoa dela esaten da, hots, aurpegi ezberdinak dituela. Bestela esanda, litekeena da errealitate bat baina gehiago egotea. Edo, errealitatea bat eta bakarra izanda, hura ikusteko modu ezberdinak egotea. Eta Euskal Herriko langile-klasearen errealitatea gogorra da. Ondo dakigu zertaz ari garen, egunero sufritzen baititugu bere ondorioak. Hamaika adibide ditugu. Langabezia-tasa oso altua da. Uneotan 195.440 dira gurean lan egin nahi baina eta lanik egin ezin duten lagunak, guztien %14,6 -Europar Batasuna osatzen duten 28 herrialdetako bataz bestekoa baino 5,8 puntu gehiago. Langabetuen erdiak baina gehiagok agortuta ditu langabezia-prestazioak, lagun horiek kasu askotan muturreko pobreziara bultzatuz. Gure lan-baldintzen kontrako erasoak, bai sektore publikoan zein pribatuan, gero eta larriagoak dira. Enplegu gutxi sortzen da, eta sortzen dena, kasurik gehien-gehietan, oso kalitate txarrekoa: lanaldi partzialak, miseriazko soldatak, eskubiderik gabe... Hau guz-

**Es posible que la realidad de la patronal o de las élites económicas sea fantástica, pero la de las y los trabajadores en Euskal Herria cada vez es más dura**

tiaren ondorioz, milaka eta milaka dira Euskal Herrian euren lan-baldintzen alde borrokan ari diren langileak.

Hori da (gure) errealitatea. Agian ez da errealitate bakarra izango, baina bai gure jendearena. Sindikatuak prekarietatearen kontra daraman kanpainaren baitan egunero gisa honetako adibideak aurkitu litezke. ELAk berebiziko interesa du errealitate hori Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakariari azaltzeko, sarri-sarri patronaleko eta enpresa handietako arduradunek egin ohi duten bezala. Hala ere, diferentzia garrantzitsu bat dago: Urkulluk ez du ELArekin bildu nahi. Esateko zer edo zer baldin badugu 'elkarrizketa sozialaren mahaira' joan eta esan beharrekoa bertan botatzeko gonbita egin digu. Argi dago hori ez diela esaten patronal edo enpresari handiei. Beraientzat beti ditu bere bulegoko ateak zabalik, edo beti dauka denbora tarte bat eurek antolatutako ekimenetara joateko. Ez dago Urkullu lehendakariaren agenda publiko ofiziala jasotzen duen Irekia web atarian sartu besterik hori frogatzeko.

Ez dirudi oso sanoa denik herrialde baten goi-arduradun politikoak bertako sindikatu nagusiarekin bildu nahi ez izatea. Norberak bizi duen errealitatearen inguruko iritziak elkar trukatzeko aukera polita litzateke. Dena den, jarrera horretan Urkulluk azken orduko aliatu bat dauka. Bere jokabidea txalotu duen arduradun politiko garrantzitsu bat. ELArekin ez biltzeko erabakia eredugarria dela azaldu duen politikaria. Eskuinaren muturrean dagoen espainiar zale amorratu Javier Esparzas mintzo gara, UPNko presidentea. Hala mintzatu zen Nafarroako Parlamentuan, eta Urkulluren jarreratik zer ikasirik baduela leporatu zion Nafarroako Uxue Barkos lehendakariari.

**Confebask**. Baina, zoritxarrez, ez ziren egun horretan soilik Urkulluren esanak deigarriak izan. Confebask patronaleko presidente Roberto Larrañagak harribitxi gogoangarriak utzi zituen. Larrañagak adierazi zuenez Euskal Autonomia Erkidegoan ia enpresen erdiak arazoak ditu jendea kontratatzeko orduan, ez dituztelako hautagai egokiak aurkitzen. Horretarako hiru arrazoi eman zituen: espezializazio falta, eskarmentu gabeziak eta langabetuen jarrera arazoak. Horra, Confebask-en arabera, langabezia tasa izugarriaren arrazoia: jarrera falta.

Adierazpen horiek lotsagarriak izanda, are eta salagarriagoak dira noren ahotik

## Nuestra labor no es acompañar a los gobiernos en sus políticas y legitimarlas, sino movilizarnos y luchar por un cambio social real

## El responsable de Confesbask, patronal que hasta la fecha ha cobrado 37,5 millones de euros de dinero público sin haber acreditado nunca ningún tipo de representación, tiene la desfachatez de decir que la falta de actitud de las personas desempleadas es un obstáculo "para cubrir las necesidades de empleo que tiene la patronal"

irten ziren kontutan hartzen badugu. Izan ere, Confebask patronala Euskal Herrian dagoen iruzurrik handienetakoa da. Eusko Jaurlaritzak berak emandako datuak ontzat ematen baditugu, orain arte 37,5 milioi euro eman dizkio Confebask patronalari diru-laguntza eta subentzioetan, "enpresarien ordezkaritza instituzionala" argudiatuz. Hala ere, eta hemen dago iruzurra, Confebaskek ez du bere ordezkaritza inoiz frogatu. Ez dute boza emateko ontzi bat urrutitik ere ikusi. 2015eko azaroan aurkeztu zen Garen patronalak salatzen duenez, Confebask-en ordezkaritza %15ekoa da. Hori bai dela errealitate propio baten bizitzea!

**ITP**. Errealitatea poliedrikoa omen da. Eta, azken asteetan errealitate horren aurpegi ezberdinak ulertzeko balio handikoak diren bi filtrazio handi ezagutu ditugu. Denboran lehenak zerga iruzurrarekin eta kapitalen zuritzearekin du lotura, Panamako Paperak bezala ezagutua. Bigarrenak, uneotan Ameriketako Estatu Batuak eta Europar Batasunak negoziatzen ari diren merkataritza librerako TTIP hitzarmenarekin lotura du. Ezin esan bi filtrazio horien edukiek inor harritu dezaketenik. Inork gutxi hartu ditu ezustean bertan jaso direnak. Asko jota mundu guztiak susmatzen zuen berresteko balio izan du.

Hala ere, badago guzti honetatik ikasi beharreko ikasgai bat. Nork filtratu duen edo zein interes dituen ahaztu gabe, agerian geratu da antolaketa, mobilizazioa eta kontra-informazioa ezinbestekoak direla. Europako zein Ameriketako Estatu Batuetako korporazio kapitalista nagusienen mesedetan isilpean negoziatzen ari diren merkataritza libreko TTIP hitzarmenaren inguruan gertatutakoa oso adierazgarria da.

Europa osoan zein Ameriketako Estatu Batuetan gero eta gehiago dira proiektu honen kontra entzuten ari diren ahotsak. Esaterako, ekimen honen aurkako borroka da martxoaren 31z geroztik Frantzia astintzen ari den Nuit Debout mugimenduaren lehentasunetako bat. François Hollande uneotan hitzarmen hau onartzeko baldintzarik ez dagoela esatea ere lortu dute. Alemania edo Belgika bezalako herrialdeetan protesta ekintza handiak izan dira. Ameriketako Estatu Batuetan, arrazoi ezberdinak argudiatu arren Donald Trump eta Bernie Sandersek TTIParen aurka egindako kritika gogorrek Hillary Clintonek –ziurrenik Alderdi Demokrataren hautagaia azaroko hauteskundeetan– hasieran zuen aldeko jarrera aldatzera –hitzez behintzat– behartu dute.

Berriki Ameriketako Estatu Batuetako presidente Barack Obama Alemaniara egin duen bisitan ohartarazi du hitzarmen hau aurten adostu ezean bere sinadura hainbat urtez atzeratu beharko litzakeela. Agerikoa da negoziazioak une erabakigarri batean daudela. Ez dakigu hainbat agintarik azken asteetan egindako adierazpenak TTIP ekimenaren aurkako mugimenduek egindako presioaren ondorio diren edo besterik gabe negoziatzeko orduan indar posizio bat hartzeko amarrua besterik ez diren. Aurki jakingo dugu, baina argi dago nazioarteko mobilizazioa ezinbestekoa izaten ari dela ekimenaren aurkako borrokan.

**Industria politika**. Errealitatea poliedrikoa da, eta bera egunero-egunero eraikitzen da. Herriaren biziraupena bermatuko duen industria politikak aldarrikatuz; nazio aitortza ukatzen dizun Estatuak negoziazio kolektiboaren estatalizazioaren bidez inposatu nahi duen prekarietateari erantzunez; langile askoren lan-baldintzak hobetzea suposatuko duten lan gatazkak aurrera eramanaz –hor daude, esaterako, azkenaldian hainbat enpresa eta sektoretan lortutako akordioak: Zarautzeko garbikuntza, Nafarroako ile-apaindegiak, EAEko suhiltzaile legea atzera bota izana, Arabako ehungintza...–; guztiok lekua izango dugun gizarte bidezkoago bat eraikiz; Ipar Euskal Herria elkargo bakarra izan dadin lan eginez...

Errealitatea, aurpegi ezberdinak izateaz gain, eraldatu egin daitekeelako. Jarraitu dezagun gure esku dagoen guztia egiten Euskal Herriko langileontzat hain makurra den errealitate hau aldatzeko. Beste batzuk ere egunero lan egiten dute euren errealitatea sendotzeko.

## Filtraciones como los Papeles de Panamá o sobre las negociaciones del TTIP dejan al descubierto los intereses de las élites económicas en su intento para seguir manteniendo su dominio y hegemonía

# “La estatalización de la negociación colectiva empobrece las condiciones laborales y vulnera la libertad sindical”

## ELA Y EL SINDICATO GALEGO CIG SE ALÍAN PARA LUCHAR CONTRA LA CENTRALIZACIÓN DE LOS CONVENIOS ORQUESTADA POR LA PATRONAL Y LOS SINDICATOS ESPAÑOLES UGT Y CCOO







› **ERREDAKZIOA**

**Una representación de las ejecutivas de la CIG y ELA** –encabezadas por los secretarios generales, Suso Seixo y Adolfo Muñoz *Txiki*, respectivamente– se reunieron el 10 de mayo en Santiago para analizar la situación sindical, social y política en Galiza, Euskal Herria y el Estado español.

En esta reunión, entre otras cosas, ambos sindicatos profundizaron en el impacto de la estrategia que lideran la CEOE con CCOO y UGT para estatalizar la negociación colectiva. Ambos sindicatos decidieron elaborar una declaración conjunta en la que, además de denunciar los objetivos que pretenden esas organizaciones, anunciaron los espacios de colaboración que CIG y ELA van a compartir para hacerles frente. (Por su interés, recogemos la declaración elaborada por ambas organizaciones en la siguiente página).

Y es que la estrategia de centralización de la negociación colectiva es perversa para los intereses de la clase trabajadora. No es cuestión de kilómetros, es cuestión de dignidad. La patronal bloquea la negociación de los convenios vascos para que entren en vigor los convenios estatales, acordados en Madrid con UGT y CCOO, que son minoritarios en nuestro ámbito. El resultado es el aumento de los beneficios de una minoría privilegiada a costa de hundir en la precariedad a los trabajadores/as afectados. Tras esa caía salarial se produce, además, un grave empobrecimiento social.

**En campaña contra la estatalización.** Buscan cargarse la negociación colectiva, el único elemento de redistribución de la riqueza que nos quedaba. Por ello, ELA ha puesto en marcha una campaña de socialización en la que explicará al conjunto de la sociedad las terribles consecuencias de esta estrategia estatalizadora de los convenios, al tiempo que demanda al Gobierno Vasco que no apoye ni financie a la patronal Conebask, como viene haciendo hasta ahora, y que defienda la libertad sindical y el derecho a la negociación colectiva.

ELA insistirá, asimismo, en que la forma más eficaz de frenar el poder inmenso que la patronal ha obtenido es reforzando el sindicato.

“Uno por uno, una por una, la patronal y los gobiernos harán lo que quieran”.

# NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN ESTATALIZAZIOARI BURUZKO ELA-CIG ADIERAZPENA



Azken urteetan PSOEk eta PPk ezarri dituzten lan-erreforma gogorren xedea izan da langile-klasea pobretzea, enpresen etekinen hazkundea erraztea eta mugimendu sindikalaren eginkizuna ahultzea. Helburu horiek lortzea posible egiten duten erabakietako bat negoziazio kolektiboa estatalizatzeko aukera da, PSOEko Zapateroren 2011ko erreformak ireki, eta PPk 2012an egin zuenarekin jarraipena izan zuena.

CEOE, CCOO eta UGT Espainian erreforma haren baitan sinatzen ari diren estatu, sektore eta enpresa mailako hitzarmen eta akordioak aztertuta, CIGek eta ELAk horien helburu nagusiak nabarmendu eta salatu nahi ditugu:

- Estatalizazioa lan-baldintzak zeharo txartzeko egiten da. CEOE, CCOO eta UGT betetzen ari dira besteak beste Espainiako Bankuak erreformentzat ezarritako helburua: hitzarmen estatalak lehenestea, soldatak jaitsiarazteko. Espainiako Bankuaren arabera, soilik bi negoziazio eremu geratu behar dira: estatukoa (langileen benetako parte hartzetik urruna) eta enpresakoa; azken hau lan-baldintzak erabat malgutze aldera. CIGek eta ELAk nabarmentzen dute gaurkoz estatalizazio honek, genero ikuspuntutik hartuta, askoz kalte handiagoa eragiten diela emakumeei: multzo honetako hitzarmen gehienak sektore oso feminizatuetakoak dira.

- Estatu mailako hitzarmen edo akordioek (sektore zein enpresakoak direla ere), zeinek galarazi egiten diguten estatukoa ez den beste eremuetan negoziatzea, xede bat dute: beste sindikatu batzuk, gure nazioetan ordezkaritza nahikoa izanagatik ere, baliagarri izan gaitezen eragoztea, beren lan-baldintzak negoziatzeko hautatu gaituztenentzat. Praktikan estatalizazioak askatasun sindikala urratzen du, betoa ezartzen baitio negoziazio kolektiboari, hots, oinarrizko eskubide hori taxutzen duten eduki nagusietako bati.

- Patronalaren interesa agerikoa da: hitzarmen estatalez baliatzea; hitzarmenok, langileengandik urrunak izanik, hauen parte hartzea galarazten dute, eta horri esker enpresek diru gehiago irabazten dute, lana prekarizatuta eta, bide batez, ekintza sindikala eta greba ezinezko bihurtuaz.

- Bestalde, azken lan-erreformen itzalean, CCOOk eta UGTk beren ordezkaritza-monopolioa estatu guztian finkatu nahi dute. CCOOk eta UGTk patronalari nahi duena ematen diote, horren truke CEOEk solaskide bakar gisa aitortzen dituelarik. Monopolio sindikalaren helburuak, beste batzuri askatasun sindikaleko oinarrizko eskubidea ukatu eta eragindako langileak aintzat hartzen ez dituen heinean, sindikalismo bertikalaren gero eta antza handiagoa hartzen du.

- CEOE, CCOO eta UGT organizazio espainiarrak oldarkorrak dira estaturik gabeko nazioetan, esaterako Galizan eta Euskal Herrian, dauden beste errealitate sindikalekiko. Gauzatzen ari diren estatalizazio estrategiak agerian uzten ditu CIGen eta ELAren ustez garrantzi handia duten auziak. Lehena, gure nazioen arau-markoen gabezia handia, hauek ez baitute lan- eta gizarte-arloko legegintza eskumenik jasotzen; bigarrena, berriz, gure herrien burujabetzaren aldeko borroka oso lotuta dagoela ordezkatzen dugun langile-klasearen bizi- eta lan-baldintzekin. Negoziazio kolektiboak lan-esparruan arauak sortzeko aukera ematen du, eta honi eskerrak sindikalismo erreibindikatiboak, esaterako CIG eta ELAk, aberastasunaren banaketa zuzenagoa lortzeko ahalmena du. Euskal eta galiziar langileok negoziazio kolektiborik gabe uztea "espainiar merkatuaren batasuna" sakontzeko CCOO, UGT, botere ekonomiko eta gobernuen estrategiaren osagaietako bat da: ekidin nahi dute guk eragina izatea, eta, horrenbestez, pobretu egin nahi gaituzte.

**Elkar urratsak.** Hau ikusirik, CIGek eta ELAk erabaki dugu elkarri gure esperientzien berri eman eta estatalizazioari aurre egiteko estrategiak partekatzea. Helburu horrekin honako urratsak egingo ditugu:

- Galizako eta Hego Euskal Herriko (Gasteiz eta Iruñeko) parlamentuei eskatuko diegu negoziazio kolektiboaren aldeko ebazpenak egin ditzatela, eta lan- eta gizarte-arloko legegintza ahalmena euskal eta galiziar autogobernuaren atal bihur daitezen. Ezin da esan demokrazia edota autogobernua dugunik gure nazioetan aberastasuna nola banatzen den erabakitzeko tresnarik ez badaukagu.

- Erabaki dugu bi sindikatuetako zerbitzu juridikoek elkarrekin lan egingo dutela askatasun sindikalerako eta negoziazio kolektiboko oinarrizko eskubidearen defentsa juridikoa prestatzeko.

- Beti egin izan dugun moduan sindikalismoaren balioa aldarrikatzen dugu langile-klasearen tresna gisa, egitate sindikalak islatzen duen nortasun kolektiboa deuseztatzeko patronal eta gobernuen estrategiei aurre egite aldera. Gure esku dagoen guztia egingo dugu alde bakarreko erabakiak ezarri nahi dituen patronalaren aurka; honen asmoa lan-harremanak enpresa eta langileen arteko banakako erlazio bilakatzea da, sindikatu eta eskubide kolektiborik gabe.

**¡VIVA A CLASE TRABALLADORA GALEGA!**

**GORA EUSKAL HERRIKO LANGILERIA!**

**CIG eta ELAko Batzorde Exekutiboak**

***Santiago, 2016ko maiatzaren 10a***

# "Debemos acoger y dar amparo a quienes lo necesitan"

## LEIRE TXAKARTEGI Y JONE BENGOETXEA, DEL ÁREA DE INMIGRACIÓN DE ELA, RESALTAN EL DEBER ÉTICO DE ACOGER A LAS PERSONAS REFUGIADAS Y ALERTAN DEL AUGE DEL RACISMO Y LA XENOFOBIA



› **ERREDAKZIOA**

**-La tragedia humanitaria que estamos viviendo a las puertas de Europa no tiene nombre.**

-Según fuentes como ACNUR, en 2015 han entrado 1.014.836 personas en Europa, 850.000 por Grecia. Se han ahogado, como mínimo, 3.700 personas en el mar. Hemos conocido, también, que han desaparecido en torno a 10.000 niños y niñas al llegar a Europa. No sabemos el dato exacto de las mujeres que están sufriendo violencia sexista, pero podemos intuir que será escandaloso...

En muy pocos momentos de la historia ha habido un mapa de conflictos tan extenso y con semejantes proporciones de personas desplazadas. Hablamos de Siria, con la mitad de su población desplazada (11 millones de personas), pero debemos mencionar, igualmente, Afganistán, Pakistán, Kurdistán, Ucrania, Oriente Medio, varios países del norte de África, Sudán, República Centroafricana, Congo... Hablamos de 60 millones de personas desplazadas, la mayoría de ellas sin poder salir de sus países de origen o detenidas en países más o menos cercanos. Y no olvidemos que, junto a ellas estaban, están y estarán los millones de migrantes por causas económicas. La división entre estos y los que huyen de las guerras y las persecuciones es ya del todo imposible. Pues bien, un porcentaje mínimo de todas esas personas ha llegado o podrá llegar a Europa.

### Sindikalista garen aldetik mezu bakarra hedatu nahi dugu: harrera egin nahi diegu

**-Llevamos años denunciando que la construcción de la UE asume los postulados más insolidarios de la derecha. Políticas de austeridad que contribuyen, entre otras cosas, a dar alas al racismo y la xenofobia. Ahora, lamentablemente, está sucediendo lo mismo en relación con las personas desplazadas...**

-El bochornoso espectáculo que están dando los gobiernos de la Unión Europea en la gestión de esta crisis muestra con claridad que la hegemonía en lo económico ha dejado a Europa sin principios éticos y políticos y, una vez más, aparece tal como es realmente: un proyecto antidemocrático y antisocial en beneficio de élites empresariales y financieras. Para defender su status quo pretenden construir una fortaleza, cuando es evidente que la gestión policial y las vallas no podrán detener la oleada migratoria de desesperación.

Nos gustaría destacar, por otra parte, que lo que se ha venido a denominar crisis de personas refugiadas no es tal, porque no se está refugiando prácticamente a nadie. Y no es una crisis, porque la situación ni es pasajera ni tiene que ver con la escasez. Es sólo el hundimiento moral y político de una Europa incapaz de hacer lo más elemental: acoger, siquiera por un tiempo, a quien está en situación de necesidad.

**-Muchos pretender olvidar la responsabilidad de la Unión Europea en la situación que están viviendo las personas desplazadas:**

-La UE no es ajena a las decisiones geopolíticas que han traído guerras y desestructuración a los estados de donde provienen las y los refugiados. Han llevado a cabo una política de venta de armas e intervenciones múltiples, incluidos bombardeos aéreos, que sólo han servido para provocar más víctimas, aumentando el caos en el que el yihadismo nace y se fortalece...

Son ellos los que han diseñado la fallida política europea de inmigración, basada en el control militar y policial de las fronteras externas; han impulsado políticas de austeridad que han empobrecido a la mayoría de la población, destruyendo lo que vino a llamarse

## HARRERA EGIN NAHI DIEGU

**ELAk bere kezka azaldu nahi du errefuxiatuek bizi duten egoeraren aurrean. Horregatik maiatzaren 16an protesta ekintza bat antolatu zuen Espainiako Gobernuaren Atzerritartasun Bulegoaren aurrean. ELAk Iruñeko eta Gasteizko gobernuei, baita foru- eta udal-erakundeei ere, honakoa eskatu nahi die: beharrezko bitartekoak aktiba ditzatela gure herriak egin dezan beste batzuk gurekin egin zutena.**

## Migranteak terrorista potentzial edo gure soldatak debaluatzeko lehiakide gisa aurkezten dira, eta horrela iritzi publikoa prestatu egiten da mugak ixteko edo deportazioak hasteko

modelo social europeo y fomentando el auge de posiciones xenófobas y de extrema derecha ante la falta de perspectivas y alternativas de futuro de las clases populares.

Estos mismos estados han incumplido sus propios acuerdos de reparto de cuotas de las personas refugiadas, aunque eran totalmente insuficientes. Sólo se ha acogido de forma oficial a 272 personas, 18 en el Estado español.

**-El acuerdo de la UE con Turquía es una auténtiva vergüenza.**

-Es un acuerdo contrario a los derechos humanos y a las leyes internacionales que se carga lo poco que quedaba del derecho de asilo en Europa. Europa mira hacia otro lado, previo pago de 6.000 millones de euros a un país que está bombardeando desde hace meses a la población kurda en su propio territorio.

Pero el drama de las personas migradas no acaba al entrar en Europa. Una vez aquí hay fronteras internas que les resulta muy difícil superar: precariedad laboral y vital, pobreza, exclusión social, internamiento en campos de refugiados, islamofobia y xenofobia,...

**-Hablando de xenofobia y racismo... Asistimos a una identificación de las personas migrantes con potenciales terroristas o con competidores para devaluar nuestros salarios y se prepara así el terreno de la opinión pública para decisiones inhumanas como el cierre de fronteras o las deportaciones.**

-Eso es así, y como sindicato creemos que tenemos mucho que hacer para promover la igualdad de derechos de las personas migradas y para desmontar los prejuicios racistas y xenófobos. Ya sabemos que también dentro de la clase trabajadora y dentro de los colectivos más desfavorecidos se fomenta el racismo y la xenofobia buscando su división.

Pero la realidad es terca: los desplazamientos masivos de personas se han dado, se están dando y se van a seguir dando, sean cuales sean las barreras que Europa se empeñe en construir. Si se cierran unas rutas, se abrirán otras: es lo que ahora mismo está pasando, por ejemplo, en el Mediterráneo. Pretender “refugiarse” de este fenómeno global no sólo es insolidario, es absolutamente imposible.

Ante la inacción de los estados, la ciudadanía ha ido por delante en muchos casos. ELA muestra su disposición a ser parte activa en esta dinámica de denuncia, movilización y solidaridad.

**-Finalmente, ¿qué mensaje es el que ELA manda a su militancia y va a intentar socializar respecto a las personas refugiadas y migradas?**

-Somos una organización sindical, que pisa tierra cuando habla de trabajo o de convivencia. No decimos que acoger en nuestro continente y en nuestro país a miles de personas vaya a ser algo fácil y exento de problemas. Lo que decimos es que esas personas van a venir, han venido, están viniendo ya. Lo que decimos es que conformamos una sola clase, la clase trabajadora. Lo que decimos es que ahora nos toca acoger. Por ello pedimos a los gobiernos de Iruñea y Gasteiz, y a las instituciones forales y locales, que activen los resortes que sean necesarios para que, como pueblo, podamos hacer lo mismo que hicieron con los nuestros: ofrecer amparo y

## Exijitzen diegu Iruñeko eta Gasteizko gobernuei, baita foru- eta udal-erakundeei ere, beharrezko bitartekoak aktiba ditzatela eskatzen dutenei babesa eta aurrera ateratzeko aukerak eskaintzeko

oportunidades de prosperidad a quienes lo solicitan, hasta que puedan volver a su tierra de origen, si ésa es su voluntad.

En un pasado no muy lejano, multitud de países acogieron a los nuestros simplemente porque eso era lo que tenían que hacer. Ahora toca devolver lo mismo: ser solidarios y solidarias y acoger, ofrecer amparo a las personas que lo necesitan.

## TODOS LOS DERECHOS PARA TODAS LAS PERSONAS

Ante este panorama desolador, la reivindicación de todos los derechos para todas las personas es imprescindible.

Desde esta proclamación de humanidad, dignidad y universalidad de derechos, ELA exige a los gobiernos de los estados de la Unión Europea que:

- Garanticen el cumplimiento del Derecho Internacional que regula el derecho de asilo, abriendo y garantizando vías legales y seguras para las personas que huyen de graves conflictos y persecuciones.
- Acuerden una nueva política de inmigración basada en las necesidades de las personas.
- Busquen la resolución política de los conflictos armados de los países originarios de las personas desplazadas, rechazando las guerras e intervenciones bélicas.
- Pongan fin a las políticas de austeridad y ajuste estructural que están incrementando la pobreza y la desigualdad social, y aseguren que todas las personas refugiadas y migradas puedan acceder a servicios y recursos públicos con independencia de su origen y de la vía de entrada que hayan utilizado. En este punto, interpelamos también a las instituciones de Hego Euskal Herria.



EKOLOGIA
MEDIO AMBIENTE

# Utz itzazue energia fosilak lurrazpian!

2050EAN EUSKAL HERRIAN ENERGIAREN %92A ENERGIA BERRIZTAGARRIA IZATEA POSIBLE DA BAINA POLITIKA ENERGETIKOAK KONTRAKO NORABIDEAN DOAZ

› AINHARA PLAZAOLA

**Azken hilabeteetan klima aldaketaren inguruan sarritan idatzi dugu, baina ez horrenbeste bere eragile nagusietako baten inguruan: erregai fosilak eta energia kontsumoa.** Maiatzaren 2tik 15era, mundu mailan Break Free kanpaina egin zen, erregai fosilak, gasa, petrolioa eta ikatza lur azpian gera daitezen.

Gaur egun dugun sistema energetikoak izan behar dituen aldaketen inguruko hausnarketa sarritan egin dugu ELAn. Energiaren sorrerak eta kontsumoak eragiten dituen berotegi efektuko gasak klima aldaketaren eragile nagusienetakoak dira. Beraz, klima aldaketari aurre egin nahi badiogu, eta egin behar diogu, ezinbestekoa da gaur egun dugun sistema energetikoa aldatzea.

Euskal Herrian, eta orokorrean mundu osoan, sistema energetikoa erregai fosiletatik eratorritako energian dago oinarrituta. Berriztagarrietatik eratorritako energiaren pisua oso txikia da, eta azken urteetan ez da areagotzen. Hau horrela izateko politika energetikoak goitik behera aldatu beharko lirateke, baina ez dago interesik horretan. Azpimarratu behar da politika klimatikoa eta politika energetikoa eskutik doazela, eta ezinbestekoa dela politika energetikoa berriztagarrien bidean jartzea benetan klima aldaketa geldiarazi nahi badugu.

Euskal Autonomi Erkidegoan Eusko Jaurlaritzak aurrera daraman politika energetikoa gasean oinarrituta dago. Bai energiaren sorreran ziklo konbinatuko zentralekin eta baita industria eta eraikinetako kontsumoan ere. Mugikortasuna, ordea, petrolioan dago oinarrituta, ez dira ibilgailuetan teknologia garbiak sartu. EAEko energiaren %7a soilik da berriztagarria, eta azken urteetan datu honek ez du gora egiten. Berriztagarrien aldeko politikarik ez da egiten, ez elektrizitatearen sorrerarako ez eta autokontsumoa bultzatzeko ere. Sektore pribatuaren esku uzten da berriztagarrien garapena, eta Estatuko legedia aitzaki, sektore honek atzerapausoak bakarrik eman ditu.

**No hay voluntad política para aplicar las medidas que eviten que el planeta se siga calentando**

Nafarroaren kasuan, energiaren %25a berriztagarrietatik dator. Egoera EAEn baino hobea da. Duela urte batzuk apustu handia egin zen energia berriztagarriaren sorrera bultzatzeko, baina azken urteetan datu honek ez du gora egin. Gainontzeko energia Castejongo ziklo konbinatuetatik dator batez ere; beraz gasak du oraindik ere pisurik handiena petrolioarekin batera.

**ELAren proposamenak.** ELAk 2014an Gorka Buenok egindako *Euskal Herrikorako energia-eredu iraunkor baterantz* lana argitaratu zuen, eta gaur egun egoerak aldaketarik ez duenez izan, gure hausnarketa eta proposamenen oinarria izaten jarraitzen du (ELAren web orrian dago irakurgai). Lan honetan 2050ean Euskal Herrian energiaren %92a energia berriztagarria izateko eman beharreko pausuak proposatzen dira:

- Garraioan, industrian eta eraikinetan kontsumoa gutxitzea.



- Garraioan kontsumoa gutxitzeko mugikortasuna da murriztu beharrekoa, horretarako ezinbestekoa da ekonomiaren berlokalizazioa eta material eta produktuen fluxuak gutxitzea.
- Energia berriztagarria energia ereduaren oinarria izateko elektrizitatearen kontsumoa da lehenetsi behar dena, batez ere eraikinetan eta industrian. Eta garraioan ere posible da hau egitea teknologia berriak ibilgailuetan aplikatuz gero.
- Sistema elektrikoa ezin da gaur egungoa izan, demokratizatu beharra dago eta horretarako eredu deszentralizatua, lokala eta publikoa izan behar da.

Proposamen hauek errealitate bihurtuta, energia eredu iraunkor eta justuago bat izateaz gain, klima aldaketaren aurkako borrokan aurrerapauso handia egingo genuke, eta gainera enplegu berdeak sortuko lirateke energia sektorean: gure aurreikuspenen arabera EAEn 20.000 enplegu eta Nafarroan beste 6.300.

## Es imprescindible orientar la política energética hacia las energías renovables si queremos parar el cambio climático

**Energia politika klima aldaketaren aurkako oinarrizko politika da.** Klima aldaketa dagoeneko gainean dugun errealitatea da. Ebidentzia zientifikoak ez du zalantzarik, gertatzen ari da eta batez ere baliabide gutxiago dituzten herrialdeak ari dira hau sufritzen, baina denoi iritsiko zaigu. Momentu honetan baditugu soluzioak klima aldaketari aurre egiteko, posible da. Hartu beharreko neurriak mahai gainean jartzen dira behin eta berriro, ezagutzen ditugu, baina momentu honetan arazoa borondate falta da. Ez dago borondate politikorik neurri zehatzak hartu eta baliabideak horretara bideratzeko. Parisko COP-21 akordioak argi erakusten du hau, herrialde denak daude ados planetaren beroketa ez dela 1,5 gradutik pasa behar, denek sinatu dute printzipio hau. Arazoa neurriak hartzeko konpromisoan dago, ez dira neurri loteslerik sinatzen, bakoitzak borondatezko konpromisoak hartuko ditu. Eta Parisen esandakoaren arabera hartuko dituzten neurriak ez dira nahikoak 1,5 graduko muga ez gainditzeko. Ez dago borondaterik.

Klima aldaketaren aurkako borroka gure gain hartzeko borroka bat da, sindikalismoak ere bere egin behar duen borroka. Ez dago klima aldaketa baino enplegu suntsitzaile handiagorik. Askotan aipatu dugu ekonomiaren trantsizio ekologiko eta sozialaren beharra, sektore batzuen desagertzea eta murrizketa emango dela eta beste sektore batzuen sorrera eta indartzea. Trantsizio hau gertatuko den egiaztapen bat da, kontua da nolako trantsizioa izango den: gutxi batzuek modu injustuan beraien boterea erabiliz aberastasuna gehiago pilatuz egingo dutena? Edo gure borrokaren ondorioz modu justuan eta aberastasunaren birbanaketarekin egingo den trantsizioa izango da? Klima aldaketaren aurkako borroka klase borroka da. Sindikalgintzak azken mendean aurrera eraman duen klase borrokaren parte da, eta horregatik ELAk ere bere egiten du.

# ELA SE UNE A LA CAMPAÑA ¡BREAK FREE: LIBÉRATE DE LOS COMBUSTIBLES FÓSILES!

Del 3 al 15 de mayo numerosas organizaciones que trabajan contra el cambio climático y por la sostenibilidad del planeta organizaron la campaña internacional **#breakfree2016, Libérate de los combustibles fósiles.** El objetivo de esta iniciativa es lograr que el carbón, el petróleo y el gas se mantengan bajo tierra y acelerar la transición justa a un 100% de energía renovable.

ELA se sumó a esta campaña con una jornada de formación el 12 de mayo en Bilbao, que contó con la participación de Pablo Cotarelo, ingeniero de minas y miembro de Ecologistas en Acción, que habló del coste de la energía; Bixente Uhalde, representante de I-ENER, organización en favor de las energías renovables; y Asbjorn Wahl, Presidente del grupo de trabajo de la ITF sobre Cambio Climático y Presidente del Comité de Transporte Urbano de la ITF, que disertó sobre los retos del sindicalismo tras la cumbre COP21 celebrada en diciembre del 2015 en Paris.

La democratización del sistema energético y la transición energética son los retos presentes y futuros que se nos presentan, tanto para la lucha contra el cambio climático como para el bienestar de la sociedad.

La jornada organizada por ELA también se centró en la energía. Un tema central cuando hablamos de los retos del futuro. Porque es un bien y un derecho básico para la vida, pero se ha convertido en un negocio. Además, la generación de energía mediante combustibles fósiles es una de las principales causantes del cambio climático. Los ponentes mostraron varias caras de la energía, tanto negativas como positivas.



- **Pablo Cotarelo**, analista del sector energético, presentó las conclusiones del estudio *El coste real de la energía* que ha realizado. Explicó, entre muchas cuestiones, cuántos millones de euros de más hemos pagado de manera totalmente ilegítima a la industria eléctrica entre los años 1998 y 2013: más de 80.000 millones de euros. Además, aclaró cuáles son los costes de este sistema en cuanto a la salud y al medio ambiente, costes que no se integran nunca en la factura.

- **Bixente Uhalde** de la sociedad I-ENER explicó el proyecto de esta sociedad que se dedica a generar energía renovable a escala local en Iparralde. Impulsados por la necesidad de una transición energética y de la democratización del sistema energético, en 2014 un grupo de personas se unió para llevar a cabo diferentes proyectos. La mayoría de los proyectos, en estos momentos se centran en la instalación de paneles fotovoltaicos en tejados públicos; nunca los instalan en tierras aptas para la agricultura ni en espacios naturales. De cara al futuro, están en fase de investigación sistemas para aprovechar la energía de los ríos. Desde ELA seguiremos con atención sus proyectos.

- **Asbjörg Wahl,** sindicalista noruego y miembro de los grupos de trabajo sobre el cambio climático de la ITF y la TUED habló del Acuerdo de París contra el cambio climático, que dijo es totalmente insuficiente, y de la falta de voluntad política para frenar ese cambio climático. Nos quedamos con sus palabras: "Tenemos soluciones para el cambio climático. Sólo hace falta voluntad política".

***(En la sección de medio ambiente de la pagina web de ELA tenéis todas las intervenciones de la jornada.)***

## DESDE IPARRALDE
## IPARRALDETIK

# I-Ener, burujabetza energetikorantz

MATHIEU IRIART, ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ALDEKO I-ENER PROIEKTUAREN BULTZATZAILEA




› XABIER HARLUXET

**Euskal Herriko 7 probintziek kontsumitzen duten energiaren %8a bakarrik ekoizten dute.** Iparraldearen kasua bereziki ahula da, jakinez bere buru-askitasun energetikoak doi doia %1a gainditzen duela. Hori dio 2014an Xabier Zubialde Legarretak egin zuen *Euskal Herria burujabetza energetikorantz* ikerketak. I-Ener, 2014eko urrian sortu zen aurrezki herrikoiaren aktibatzeko eta energia ekoizteko unitateetan inbertsioa egiteko. Mathieu Iriart, proiektuaren bultzatzaileak, hainbat argitasun ekartzen dizkigu.

**-Zer da zehazki I-Ener egitasmoa?**

-I-ENER SAS herritarren energia ekoizpena bultzatzen duen sozietate bat da, 2014ko urrian sortua. Energia berriztagarriak garatuz, Euskal Herrian energiaren berreskuratze herritarra bilatzen dugu. Ipar Euskal Herrian kontsumitzen den energiaren %99a inportatua dela jakitun, I-ENER-ek honakoa lortu nahi du. Alde batetik Euskal Herriko lurraldearen baitan, berotasun eta elektrizitate ekoizpena bertokiratu, eta bestetik energia berriztagarrietan osoki oinarritzen den modeloa sustatu. Horrela, biztanleak batzeko eta beren baliabide ekonomikoak mutualizatzeko aukera eskaintzen du gaurdanik I-ENER-ek. Eta, ondorioz, energia berriztagarrien inguruko tokiko proiektuak finantzatzeko helburua du.

**-Zein dira bere eginkizunak eta helburuak?**

-Gehiengoan Euskal Herriko biztanleen esku den herritarren energia ekoitzpenerako sozietate bat da I-ENER, sozietate handietarik independentea eta interes orokorreko desmartxa batean ekiten duena. Bere eginkizunak dira herritarren aurrezkiak biltzea eta aurrezki hauek energia berriztagarrien inguruko proiektuetan inbestizea, interes orokorra zainduz. Bestalde, I-Ener-ek energia berriztagarrien ekoizpen proiektuak sortzea eta diru beharrak dituzten energia berriztagarrien inguruko proiektuak sostengatzea ditu helburu.

Oro har, Euskal Herritarren burujabetza energetikoa du helburu, biztanleek ekoiz dezaten beren kontsumoaren araberako energia kopurua, baliabide naturalen epe luzeko eskuragarritasuna errespetatuz.

**-Gaur egun energia berriztagarrietan eguzki eta haize indarrei buruz zonbait kritika entzuten dira alta...**

-I-Ener-entzat argi da bertutetsua, garbia, osoki berriztagarria den energia, kontsumitzen ez dena dela. Baina, hala eta guztiz ere energia minimo bat behar badugu, tokiko energia berriztagarrien hautua baitezpadakoa da.

**Solo el 1% de la energía que se consume en Iparralde es auto producida. El objetivo es revertir la situación**

Haize energiaren arloan Iparraldean bi parametro ezezkor baditugu. Haizea ez da aski jarraikorra eta iraunkorra (abiaduran eta norabidean) eta haize-errota proiektuak hainbat milioi euroko proiektua erraldoiak dira guretzat.

Fotoboltaikoaren kasuan, nahiz eta gaur egun %90 Txinatik datorren, I-Ener-ek xedea du europar jatorria duten instalazioen erabilpenaren lehenestea lehenbailehen, jakinez haien birziklapenaren arloan ere hobekuntzak ari direla agertzen.

**-18 hilabete eta gero zer gauzatze lortu ditu I-ENER-ek?**

-Uztaritzeko herrian lortu ditugu bi fotoboltaiko proiektu plantan emaiterat. Eskola baten eta kiroldegi baten teilatuetan. Hori guziak herritarren aurrezkia eta hautetsien ausardia lagun. Eskolako teilatuan den instalazioak pedagogia egiteko parada eskainiko du haurren eta burasoen munduan ere tokiko eredu energetiko bertutetsuari buruz.

**-Aurtengo beste proiektu batzuk badituzue?**

-Bai. Hendaia eta Makea bezalako herriko etxeetan baditugu aurrera doazen proiektuak eta Baxe-Nafarroan beste 3 herritan. Oztopo teknikoak (hirigintza arloan, fotoboltaikoak elektrizitate sare orokorrari lotzeko arloan, etab.) gainditu eta haietarik bi udazkeneko martxan izaitea espero dugu. Noski, herritar inbertsioa ere indartuz joan beharko da horren ahalbidetzeko. Gaur egun ditugun 200 kideetarik espero dugu ehunka kideren kopurua lortzea ahal bezain laster.

**-I-Ener-ek bere lehen langilea enplegatzen du apirilaren 1etik geroz...**

-I-ENER-en proiektuak berekin dakar tokiko enplegu ezin deslokalizatuen sortzea. Horrez gain, hautetsien galdeak goitituz joan dira eta horrek sortu duen lan zamak langile baten beharra argi utzi du. Lan postuaren finantzaketa lortu dugu kanpoko baliabideak lagun Europako mailatik eta bereziki Udalbiltza proiektutik eta Herrikoa egitasmoaren parte hartzea erabakigarriak izan dira. Herritarren aurrezkia proiektuarentzat behar diren instalazio ezberdinen finantzaketarentzat erabilia delarik bakarrik.

# “No pararemos hasta lograr un buen convenio”

LA TOTALIDAD DE LA PLANTILLA DE LA UTE TMB ARRAIZ ESTÁ EN HUELGA DESDE EL 4 DE ABRIL EN LUCHA CONTRA LA PRECARIEDAD Y POR UN CONVENIO JUSTO



› GORKA QUEVEDO

**“Si alguien piensa que cuanto más se alargue el conflicto tendrá mejor posición de fuerza para negociar, se equivoca de pleno.** Es justo lo contrario, hoy es más fácil llegar a un acuerdo que mañana; y mañana más fácil que pasado mañana. La gente está cada día más animada, mucho más que el primer día”. Las y los trabajadores de TMB Arraiz, UTE formada por las empresas Pabisa y Valoriza (Sacyr), dedicada al reciclaje de residuos sólidos urbanos de Bizkaia, lo tienen claro. “Tanto la Diputación Foral de Bizkaia como Garbiker –sociedad encargada de licitar este servicio– saben que no vamos a parar hasta lograr un convenio digno. En este sentido, está en sus manos solucionar este conflicto”.

Este es el mensaje que quieren transmitir Kike, Juan, Iñigo, Andima, Elena, Azucena, Rubén y Aitor, militantes de ELA en TMB Arraiz, en huelga desde el 4 de abril. Un mensaje de lucha contra la precariedad y en defensa de un servicio público como el que prestan. “La Diputación y Garbiker han otorgado un cheque en blanco a Pabisa y Valoriza para que hagan negocio a costa de nuestra precariedad y de nuestra salud. Y no lo vamos a permitir. Luchamos por unas condiciones laborales dignas, ni más ni menos. Pedimos cosas tan normales como un salario justo, que se paguen los pluses de fin de semana, que se trabajen 1.592 horas anuales en lugar de las 1.728 actuales, que se tomen medidas en salud laboral...”, explican.

Las y los responsables de ELA en TMB Arraiz denuncian que, desgraciadamente, no hay nadie al otro lado. “Desde el comienzo de la huelga indefinida sólo nos hemos reunido una vez con la empresa, y la reunión no pudo ser más decepcionante. Comprobamos cómo la dirección no se había movido un ápice. La única variación de su oferta fue una miserable subida salarial del 0,25%, lo que para un salario medio supondría 3 euros al mes. Evidentemente, tras comprobar que en el resto de temas tampoco habían variado su posición, nos quedó más claro todavía que había que seguir luchando por un convenio justo”.

La sección sindical de ELA lo tiene claro: la Diputación Foral de Bizkaia no apuesta ni por la planta de TMB Arraiz ni por este servicio público. “La planta está totalmente desaprovechada. Nuestro trabajo consiste en reciclar una parte de los residuos urbanos que se generan en Bizkaia. Y este servicio, que repercute en la sociedad, podría ser mucho mejor cuantitativa y cualitativamente si la Diputación hiciera una apuesta seria por esta planta. Siempre hablan, y también se podría discutir, de la cantidad, y nunca lo hacen de la calidad. Con una plantilla mínima más amplia la calidad de lo reciclado sería mucho mejor”.

## TMB Arraizeko langileak greba mugagabean daude apirilaren 4tik, bizi duten prekarietate egoera irauliko duen hitzarmen bat lortu asmoz

“Éste no es el único ejemplo de esta actitud irresponsable. Aunque sea la responsable del servicio que se presta en TMB Arraiz, la Diputación no hace ningún seguimiento de su situación. Las empresas adjudicatarias del servicio están explotando la planta de manera salvaje. La concesión del servicio es para diez años, prorrogables por otros cinco, y su único objetivo es sacar en este tiempo el máximo rendimiento, sin importar la viabilidad del proyecto una vez termine la concesión. Pese a que lo hemos denunciado muchas veces, la Diputación no hace ningún seguimiento. Si siguen sin invertir y explotándola de esta manera, es evidente que cuando termine la concesión la planta necesitará una inversión de mucho dinero para poder seguir funcionando”.

**Salud laboral olvidada.** La adopción de medidas en materia de salud laboral es otra de las principales reivindicaciones de ELA en la negociación del convenio. Entre las y los trabajadores todavía está muy presente lo sucedido en 2014, cuando varias personas se contagiaron de la fiebre Q. “Lo primero, denunciar que esas personas afectadas todavía están sufriendo las consecuencias. Las veces que nos hemos sentado para hablar de esta materia hemos comprobado que la salud laboral les importa un pimiento. Una de nuestras reivindicaciones es que las reuniones de la mesa encargada de salud laboral sean mensuales. Sin embargo, la dirección se ciñe a lo que dice la normativa, por lo que quieren que las reuniones sean cada tres meses. ¡Y luego dicen que les preocupa nuestra salud!”.

“Tampoco queremos obviar las numerosas denuncias que hemos realizado contra la mutua Asepeyo, que ha pretendido hacer negocio a costa de nuestra salud. El caso más grave sucedió en junio del 2015, donde fue la propia mutua la que denegó a un trabajador una prestación económica. No vamos a consentir que una mutua se otorgue la capacidad de si se paga o no a un trabajador”, concluyen.

# #ERREPIDEAKGREBAN




› GORKA QUEVEDO

Asko dira Euskal Herrian arrazoi ezberdinen ondorioz uneotan borrokan dauden enpresa eta sektoreetako langileak. Horietako askok euren borroka azken muturreraino eraman beste aukerarik ez dute izan, greba mugagabea deituz. Horien artean daude Gipuzkoako errepideak zaintzeaz arduratzen diren lagunak. Urte askotan hamaika eraso jaso ostean, martxoaren lehenean aski zela erabakita greba mugagabea hasi zuten. Hori da uneotan Euskal Herrian indarrean dagoen grebarik luzeena.

Langile hauek oinarrizko zerbitzu publiko bat eskaintzen dute. Euren ardura da, besteak beste, errepideen garbiketa eta mantentze lanak, errepideko gertakarien artapena, neguko errepide planak, abisu eta gertakarien kudeaketa, arlo guztietako mantentze elektrikoa edo tunelen zaintza. Lan guzti hauek Gipuzkoako errepide guztietan egiten dituzte, ordainekoak diren AP-8 eta AP-1 autopistetan izan ezik.

Langileek gogor salatzen dute zerbitzu hau eskaintzen duten enpresen –Ikusi, Korostel, Zerbitzu Elkarteak, Ferrovial, Asfaltos Urretxu, Murias eta Otegui Gaztañaga– jarrera. Enpresa guzti hauek hiru Aldi-Baterako Enpresa Batasunean daude bilduta: Goierrialdea, Miramon eta Goierri Deba. Enpresa hauek prekarietatea eta esplotazioa erabiltzen dute euren irabaziak handitzeko: lanaldi amaigabeak, sarri askotan hamabi ordutik gorakoak; lan egiteko gehiegizko erritmoak; pertsonal falta; prekarietatea; azken sei urteetan izozketak besterik ezagutu ez dituzten soldata eskasak...

**Baina langileek ere gogor salatzen dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarrera.**

Izan ere, ez dugu ahaztu behar bera dela zerbitzu hau eskaintzearen arduradun gorena. Bera da zerbitzu publiko honen baldintzak arautzen dituena. Bera, eta ez beste inor, da esleipena prezio baxuetan egitearen arduraduna. Zoritxarrez, ez dirudi askorik inporta zaienik langile hauen egoera. Greba hasi zenetik ez du inolako ahaleginik egin gatazkaren konponketarako. Gipuzkoako Foru Aldundiak uko egiten dio grebalariekin biltzeari; patronalak uko egiten dio negoziatzeari.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitzatik pasatzen bazara, ziurrenik han topatuko dituzu prekarietatearen kontra eta lan-baldintza duinen alde borrokan ari diren langile hauek. Izan ere, gauza bat argi dute: egoera konpondu bitartean greban jarraituko dute, protestan, zarata egiten. Azken finean lan baldintzak –soldata igoerak, plusak, erreformaren aurkako klausulak edo sinatutakoa beteko denaren bermeak– erregularizatuko dituen Enpresa Hitzarmenak lortu arte. Erabakia argia da: Gipuzkoako errepideen mantenuaz arduratzen diren ia ehun langile hauek borrokan jarraituko dute, euren lan-baldintzen eta guztioi eragiten digun zerbitzu publiko baten alde.

FRANQUEO CONCERTADO
NO 08/129